

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektuak funtziona dezan oinarrizkoena zerbitzu ona eskaintzea da.

- Beraz, lehenengo animalientzat zaintza egokia lortu behar dugu. Horretarako Anboto aldizkarian iragarki bat jarriko dugu gure enpresa aurkeztuz eta langile beharra adieraziz. Iragarki horretan langile arduratuak, errespetatsuak eta animalizaleak bilatzen ditugula idatziko dugu gure enpresaren telefono zenbakirekin batera gurekin kontaktatu ahal izateko. Ondoren jendea gurekin kontaktatzerakoan, elkarrizketak egingo ditugu langile egokiak lortzeko.
- Beste aldetik, animaliak zaintzeko material eta toki egokia behar dugu, beraz, lehenik eta behin enpresa hau garatzeko behar-beharrezkoa dugu toki egoki bat lortzea lana aurrera eramateko. Guk aukeratutako gunea Arantzazun alokatuko dugun etxe bat da web orri honetatik



[https://www.fotocasa.es/vivienda/arantzazu/arantzazu-147332860?](https://www.fotocasa.es/vivienda/arantzazu/arantzazu-147332860?RowGrid=5&tti=3&opi=300)

[RowGrid=5&tti=3&opi=300](https://www.fotocasa.es/vivienda/arantzazu/arantzazu-147332860?RowGrid=5&tti=3&opi=300) alokatuko duguna hilabetero 1.300€

ordainduz. Etxe hau paregabea da gure lana aurrera eramateko, zeren eta, beharrezkoak ditugun ezaugarri guztiak ditu: toki berde zabal bat du animaliak kalean ibiltzeko, komun handi bat animalien behar guztietarako, hainbat gela animaliak zaintzeko eta bulego bezala erabiltzeko eta biltegi handi bat material eta janaria gordetzeko. Gero, animalientzat material eta janaria behar dugu, beraz, Lucero animali janari enpresarekin harremanetan gaudenez, janari egokia proportzionatuko dugu eta baita ere beharrezko material guztia Petuky enpresatik lortuko dugu.

- Ondoren, behar beharrezkoa izango da bezeroekin harremana eta bezero berriak erakartzea. Horretarako web gune bat sortuko dugu non bezeroak beharrezko informazio guztia lortuko dute. Gero gure bezero oikoei egingo dizkiegun deskontuekin harremana hobetuko dugu. Bezero berriak iragarki eta eskupapelen bidez erakarriko ditugu. Iragakariak Anboto aldizkarian eta euskadi irratian egingo ditugu euskadiko toki gehienetara zabaltzeko gure lana. Bestalde, eskupapelak erabiliz herrietako tokietan itzatziz gure enpresa ezagunagoa egingo dugu.



- Azkenik gure enpresa aurrera eramateko behar beharrezkoa izango da langileen lanak zehaztea eta ondo jardutea.
 - Lehenengo, Julenek dirua eta enpresaren web orria administratuko du, zeren eta, matematika eta informatika kontrolatzen du.
 - Bestalde, Irene bezeroekin eta hornitzaileekin harremanetan lan egingo du beharrezko material guztia erosiz.
 - Ondoren Dayanna kanaletaz eta irrati eta aldizkarietan iragakariak jartzen arituko gure enpresa ezagunagoa bihurtzeko asmoz.
 - Azkenik, gu hirurok, hasiera batean, animalietaz arduratuko gara txandak aldatuz, zeren eta, hasieran ez ditugu bezero gehiegi izango. Denbora pasa ahala eta bezero gehiago etorri, langileak kontratatuko ditugu eta haiek izango dira animaliak zaintzeko arduradunak eta gu hirurok, berriz, enpresaren administratzaileak.